



HAL
open science

Eüskararen bi dikotomia

Jean-Baptiste Coyos

► **To cite this version:**

| Jean-Baptiste Coyos. Eüskararen bi dikotomia. 2011, pp.17-36. artxibo-01200708

HAL Id: artxibo-01200708

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-01200708v1>

Submitted on 17 Sep 2015

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Jean-Baptiste Coyos-en sarrera-ekitaldia

2011/06/25 Maule (Zuberoa)

Euskera. 2011, 56, 1-2. Bilbo
ISSN 0210-1564



Ongietorria

ETCHEBEST, Mixel
Mauleko aüzapeza

Eüskaltzaindiako eüskaltzainbürü den Andres Urrtia jaunari eta heben diren Eüskaltzain güzier (eta memento egiazki ahalkegarria (lotsagarria) da enetako), honki jin beroa Xiberoan eta Maulen. Maulerako bidea lüze izan da züentako zombaiten goiz hontan, eta eskertzen zütüet ere horregatik.

Nolaz ez keinü berheizi bat egin bi Eüskaltzain xiberotarrer direnak Txomin Peillen eta Jean-Louis Davant!

Bai eta ere, heben diren haütetsi, ardüradün, kargüdün, eüskaldün oroer, honki jin Xiberoan eta bereziki heben Mauleko Maule Baitha zinegela hontan.

Xiberoa eta Mauleko herriek gozatzen düe egün, Eüskaltzaindiari batzarri egitearekila emanik izan zaien parada. Lehenik Battittu Coyos eta gero Aurelia Arkotxa, Maulerat jin dira egünaldi honen gureki prestatzeko. Eta ontsa ohartü gira zer gertakari ezohizkoa zatekean gure herriarentako.

Beste gertakari bat ere badügü Maulen egün berean, hau da Xiberoan Eüskaraz Bai Egüna. Bi gertakarien üztartzea honartü dü Eüskaltzaindiak, eta uste düt bi gertakariak bata bestea hazten düela. Alde batetik, Xiberoan Eüskaraz Bai Egünak, Eüskaltzaindiak ekarten beiteio beharrezkoa den ofizialtarzün marka, eta bestalde, Eüskaltzaindiak xiberotar gizarteari edo jentarteari, bere lanen eta ebilmoldearen hobeki erakusteko parada beitü, heben izatez.

Izena badakigü, bena züen ikustea eta entzütea beharra badügü eta hortaz zinez egarri gira.

Eta denek dakigü holaxe ofizialatü eta indartü beharra düan eüskarak Iparralde hontan, eta bereziki Xiberoan. Damürik, aski seinala badügü erraiten deiküena zer egoeretan den xiberotar eüskalkia, ohartzen girelarik zonbat gaitz den maskarada elibaten antolatzea eüskaradün gazte eskazagatik, bena bai eta ere, zer problema baden pastoralak folklorealat lerratzetik etxekitzeko!

Eüskaltzaindia berme azkarra eta beharrezkoa da ofizializatzte bide hortan.

Ürrentzen düt batzarri hau agur bero bat lüzatzez mementoan gordatzen deiküzüen gizon bati, erran nahi düt Battittu Coyosi, Mauleri, bere sorterrari, pentsatü beitu bere kargü-hartze ofizialarentzat, eta gisa horrez Eüskaltzaindiaren errezebitzeko parada eman beiteikü. Gehit niro erranez ohore handia dela Mauleko herriarentako ere, Eüskaltzain baten kontatzea bere semeetan orai! Eskerrik hanitx Mauletar semea den Battittu Coyos jaunari!

Ordüan, bihotz zolatik, ene baitatik eta Xiberoaren izenenan, batzarri hon eta ohore Eüskaltzaindiari, eskerrik hanitx eta egünaldi hon eta beroa oroer.

Agurra

URRUTIA, Andres
Euskaltzainburua

Agintariok,
Euskaltzainok,
Mauleko auzapeza eta zinegotziok,
«Battittu» Coyosen etxekook,
Jaun-andreok,
Egun on,

Berrikitan etorri zait eskura Paben 1692. urtean argitaraturiko testua. Zuetariko askok aspalditk ezagutzen duzue. Titulua: Zuberoako ohitura edo lege nagusia. Testuaren hizkuntza nagusia biarnesa. Hasierako oharra frantsesez egina eta tartean martean, euskarazko hitzak, hainbat artikulutan ageriko direnak, garai bateko zuberoako erakundeak zirenak: kaiolar, zaingoa...

Testuaren argitarazleak honetara zehazten zuen euskararen estatusa: herriaren hizkuntza zela esaten zuen, esan ere. Horrek beste galdera bat egite-
ra eramaten gaitu, hain zuzen ere, hiru mende geroago, kontuek hala jarraitzen duten ala ez galdetzera.

Orduko hartan biarnesa zen goi mailako hizkuntza, legeetan erabiltzen zena. Euskara, aldiz, gizarte osora hedatua eta zabaldua, hizkera mintzatua-
ren gisan.

Galdetu diezigun , bada, geure buruari, hiru mende geroago, ia gauza bera gertatzen den. Biarnesaren ordeztu, egun frantsesa da nagusi legeetan eta goi

mailako erabileran, euskara, berriz, lehen oro mintzatua zena, eskas eta urri dabil gure ezpainetan.

Bazen garai hartako zuberoarren artean lege hori maisuki aztertu zuena. Jakes Belakoa legelaria protestanta. Jakituria handiko gizona izanik, berak idatziriko tabletak eta iruzkinak egoki erakusten dute orduko zuberoaren giroa.

Lehen hala, orain hula, gero, ez dakit nola, halakoa izan zen belatarren goiburua. Halakoa ere geurea, lehengoa aintzakotzat hartzen duena, oraingoa lantzen duena eta gerokoa eskuratu behar duena, asmoz eta gogoz.

Gerogarren horren esperantzan, fermuki hartzen dugu egun Euskaltzaindian, euskararen akademian, Battittu Coyos zuberoarra, jakin badakigulako geure zeregina ez ezik, euskalgintza osoaren egitekoak ere berrindatzera datorrela.

Berrindartze horren barruan, aspalditik erakutsi du Coyosek kezka bizia euskararen baitan, nahiz hizkuntzalaritzan nahiz soziolinguistikoan, hizkuntza bera eta hizkuntzaren gizarte arloa aintzat hartu dituelako bere ahaleginetan. Ezagunak dira, halaber, bere zuberoar erroak eta horretara, bi zuberoar adixkide kausituko ditu akademian, hain juxtu ere, berori gure artera ekarri dutenak, Txomin Peillen eta Jean Louis Davant.

Bai eurok eta bai beste euskaltzainok ere ongi etorria ematen diogu gurekin batera eguneroko lanean, akademiaren barruan, euskararen mesedetan arituko den euskaltzain oso berriari.

Goresmenak eta zorionak Coyosen etxekoei eta orain joan daitezela Xarles Bidegain azken euskaltzain oso izendatua eta Jean Louis Davant, euskaltzain oso berriaren proposatzailea, Battittu Coyosen bila eta ekar dezaten gure artera, sarrera-hitzaldia egin dezan.

Eüskararen bi dikotomia

COYOS, Jean-Baptiste

Euskaltzain osoa

Sarrera-hitzaldia

Euskera. 2011, 56, 1-2. 17-36. Bilbo
ISSN 0210-1564

Mintzaldi honetan euskarak eta euskaldunek bizi dituzten bi dikotomia aztertzen dira. Batetik, euskaldun berri eta euskaldun zahar dikotomia, bestetik, euskalkia eta euskara batua. Zergatik bi dikotomia horiek aztertzea? Gaur egun euskaldunen eta neurri batean euskaldun ez diren euskararen ikusteko moldea egituratzen baitute. Euskara, euskaldunak eta euskal komunitatea iragazki horren bidez so egiten baititugu; gure ikusmoldea baldintzatzen du.

Dikotomia bakoitzaren bi osagaiak kontrajarten ohi baldin badira, txanpon bakar baten bi aldeak dira. Bata bestea gabe ezer ez da eta kontzeptua bere osotasunean ulertzeko bi osagaien arteko erlazioa aztertu behar da.

Zuberoako euskararen kasua eta bizitza propioaren adibideak baliatuz, hizlariak bi ohiko dikotomia horiek aztertzen ditu ohiko eskemetatik at joaten saiatuz.

Lehen dikotomiari dagokionez, euskaldun berriaren eta euskaldun zahararen arteko be-reizketa hain zehatz ez denik agertzen da. Kontzeptua definitzeko irizpidea sinpleegi ote da? Hizkuntza-transmisioaren bilakaerak testuinguru berriak dakartza eta ikastolek, era batez, euskaldun kategoria berri bat sortu dute. Nola sailkatu bi urte betetzen dituenean Sohütako ama-eskolan sartu den frantsesdun gurasoen haurra, lizeora arte murgiltze eremuan euskaraz ikasiko duena?

Euskara dagoen egoera ez normalizatuan, dikotomia horren beste alderdietatik bat sufri-mendua daukagu. Sentimendu horren bi aldeak agertzen zaizkigu, lotsa eta gabezia. Batzuen-tzat, euskaldun zaharrentzat hain zuzen, lehena; besteentzat, euskaldun berrientzat, bigarre-na. Euskaldun zaharrak sufritu du bere ama-hizkuntza baliorik gabe zela ohartzten zelarik, besteak beste, eta euskaldun berria, aldiz, euskaldun zaharra ez dela sekula izanen ohartzuz, euskara ikasteko indar askoeginik ere.

Euskararen transmisioa familian ala transmisioaren eza da dikotomia horren egilea. Zu-beroan ere gurasoek seme-alabei euskara eman ez izanaren arrazoiak ikertu behar dira, euskararen geroa segurtatu nahi baldin bada, hizkuntza gutxituentzat familia-transmisioa bizin-darraren eragile eraginkorra baita.

Bigarren dikotomiari dagokionez, argi da gaur egun euskara batua tresna beharrezkoa bali-katu dela, Zuberoan ere. Bistan da, lehen-lehenik, beste euskaldunekin elgar ulertzeko. Baina ere bearnesak eta ondotik frantsesak Zuberoan hartu zuten lekua hartzeko. Ingelesa kontuan ez hartuz, diglosia baino, triglosia ikusten da, orain batua euskalkia sendotzen ari baita frantse-saren aurre. Noski triglosia nozio hori ez da zentzu prototipikotzat hartu behar, esan nahi baita hiru hizkuntza edo hizkuntza bariataten arteko funtzioen eta erabilera eremuen banaketa ore-katu eta egonkorra litzakeela. Alderantziz, frantsesak, zubererak eta euskara batuak funtzio eta erabilera eremu ezberdinak daukate, etengabe aldatzen ari den prozesu batean.

Optimistegi ez izan nahiz, zubereraren atzerakako higidura gelditu dela iduri luke edo bederen posizio berri batzuk eskuratzen dituela, familia-transmisioa orain arte segurtatu ez baldin da ere.

Bi dikotomia ikertü nahi nüke¹. Bi dikotomia horik arren eüskaldün berria eta eüskaldün zaharra alde batetik, eüskalkia eta euskara batua bestetik dira². Haatik hasteko ohar eli bat egin dezagün mintzagei horren argitzeko.

1. Lehenik ohar elibat mintzageiaren argitzeko

1.1. Zertako haüta bi dikotomia horik?

Zertako eüskaldün berri / eüskaldün zahar eta eüskalkia / euskara batua dikotomiak haüta ene mintzageitako?

Zeren eta gure eüskararen ikusteko moldea egitüratzen beitüe, eta hanitx errepikatzen diren ohiko ikusmoldeetarik eta usteetarik at haiekin zer iker eta zer entelega badügüla uste beitüt. Bahe horren bidez eüskara, eüskaldünak ikusten eta epaiten dütügü. Horren bidez eüskaldünek berek beren mintzajea, beren mintzatzeko moldea eta besteena epaiten dütüe, bena manera batez ere eüskaldün ez den Eüskal Herriko biztanleriaren parte batek eüskara epaiten dü. Ikusmolde bat badüe euskara batuaz edo eüskalkietzaz.

Ordüan bai inportanta da bi dikotomia horien erranahiaren eta pezüaren ontsa ezagützea. Prefosta ez dütüt hemen lüzez begistatüko eta barnatüko. Badakit soziolinguistikaren eta psikolinguistikaren alorretan horietzaz gäu-

¹ Sarrera-hitzaldi hau zubereraz da. Zergatik zubereraz eta ez euskara batuaz? Arrazoa argi-argia da. Euskaltzaindiaren 4.1. barne-erregelak erraten du: «*Euskaltzain osoek, sortzez edo jatorriz, Euskal Herri guztikoak izan behar dute, euskalki guztiek Euskaltzaindian beren ordezkaria izan dezaten*». 4.2. artikulua zubererak euskaltzain oso bat izan behar duela zehazten du: «*Euskaltzainak hautatzeko garaian euskalkien ordezkariäza kontuan hartuko da, banaketa honen arabera: Arabak, bat; Bizkaierak, hiru; Gipuzkerak, hiru; Nafarrerak, hiru; Behenafarrera-Lapurterak, hiru; Zubererak, bat*». Beraz Zubereroako euskaltzain berriak zubereraz idatz dezan harrigarria ez litzateke izan behar.

² Xiberotarez nola deit ahozko bilakatü den eüskara mota hori? *Eüskara batüa* ala *euskara batua*? Ene ustez, bigarren erranmoldea hobe leite, izen berezi mota bat beita. Bestalde, mintzaje baten bateratzea aipatü nahi bada, hobe da *estandarra* hitzaren erabiltea edo holako zerbait. Euskara batua erranmoldea izen berezi bat dela erran dezakegü, euskara batua bakotxa beita, bena itxüra hanitxetako tresna bat erabilirik denean lürraldearen arabera, mintzatzen denaren arabera.

za hanitx erranik izan direla, eta, erran bezala, eüskaldünek oroek bena ere Eüskal Herrian bizi diren erdaldünek zerbait erraitekorik badüe, aitziniritziak barne. Ikusmolde horiek üsüenik analisi serio gabeko ustekerietan eraikirik dira, hots erran bezala aitziniritzietan.

Azken horik dira hitzaldi honen abiapüntüetarik bat, beste bat ene ebillide propioa eüskal mundüan bizitzearen gainti dateke, haurtzarotik orai artino.

1.2. Dikotomia hitza zertako erabil?

Zertako erabil dikotomia hitza eziz eta pare edo binoma hitzak? Alkarreki joaiten diren bi nozioneak oposatzen beütügü, pare hori moldatzen düen bi geiak, bi osagaiak. Gü ez bada, opinione püblikoa pürü. Eüskaldün berria eta eüskaldün zaharra oposatzen dira. Halaber eüskalkiak eta euskara batua bürüzbürü ezarten dira.

Logikan, halere, hau da dikotomiaren definizioea: kontzeptü baten partekatzea beste bitan, bere hedadüra osoa tapatzen düenetan. Dikotomia bi nozione ezbardinetan erdiratzen da, kontzeptü osoa argialatzeko. Bena gük heben bi dikotomia horik ez dütügü ikusiko bi kontrako izatezko eraikidürak bezala, eretzekoak diren bi nozionekilanko kontzeptüak. Aitzitik, ene ustez bakotxa sos baten bi aldeak bezala ikusi behar dütügü. Alde bat bestea gabe deüs izatez, batak besteariki kontzeptü hori bere osotazünean entelegatzen lagüntzen gütü. Hots, dikotomia horik kontzeptü bakoitx bat gisa gogoan hartü behar dütügü.

1.3. Sortzarozko eta iraganaren eraginaz

Hitzaldi honen beste abiapüntüetarik bat Pierre Bourdieuren gogoeta eli batetan hartüko dü, gogoetatze quadro bezala eta ez ihardesle, berme zientifika gisa. Mintzaldi honek ez beütü bere bürüa zientifika ikusten, teoria batetan eraikirik.

Sortzez gure aüzoa zen soziologa biarnes famatüak 2001eko *Science de la science et réflexivité* libürüan erraiten züan, ützültzen dü: «*Oharmenak, ikus-*

menak, sinesteak, egürükitzeak, esperantxak denak eta beste, sozialki egitüratürrik eta sozialki balintzatiürrik dira» (185. or.).

Bourdieuaren arabera *lege sozial* bat indar düana badügü. Berriz aipatzen dü: «Sortzarozko güne geografika eta sociala joküleri erabakigarri da gure egitateetan», gure egün orozko pratiketan erran niro (*ibid.*: 211. or.). Bestelan erranik, gure iragan sozialak bizi orotan eragina badü, haur denborako güneek ere.

Ikerzaleaz hori emendatzen züan Bourdieuk, ützültzen dü berriz: «*Iragan sozialari lotürrik den esperientzia erabili izaten ahal da ikertzean eta erabili behar da, aitzinetik begitatzte kritika zorrotz bati emanik izan balin bada. Iraganarekilanko harremana oraialdian indar düana eta habitus gisa ari dena sozioanalisiatü izan behar da*³. (...) Sozioanalisiak (...) joküaren entelegatzea ahalbideratzen dü, jokü hori egari edo sofritü orde, eta haboro ere, püntü batetara, erakaspen zombaiten ardiestea ahalbideratzen dü» erraiten dü (*ibid.*: 218. or.). Hots, eta argiago izateko nahian, erran dezagün gizarte zientzietan bere ikerketetan ikerzalearen esperientzia propioa baliagarri izan daitekeala.

Beste erregistra batetan eta hitz ezbardinetan eüskalzain bat aipa dezaket ere, Bernardo Atxaga idazlea. Beste ikusmolde bat ekarten deigü, Bourdieurenari lot dezakegüna. *Lekuak* libürüan hau izkiribatzen dü Atxagak: «*eta gainera munduok ez dira izarrak edo planetak, asteroidak edo kometak, baizik eta lekuak, eta ez daude kanpoko hutsune infinitu ilunean bakarrik, gehienak gure barruan daude, oroimenean jiraka*» (*Lekuak*: 25-26 or.). Ezagütü dütügün leküen eragipena agerrarazten deigü, molde batez Bourdieuren güne geografika eta sozialarena.

Filosofa edo soziologa izan gabe, ene baitan den mündü hori ere baliatzen dü hitzaldi hontan, ene sentimentüak, ene interpretazionea, sortzaroan eta iraganean eraikirik direnak.

Ohar horik kontüan hartzez, ikertü nahi dütüdan bi dikotomietarat joan gitean, ene igaranarekilanko harremanetarik mauletar, xiberotar, eüskaldün

³ Bourdieuren « habitus » kontzeptü hori barnatü gabe, erran dezagün *habitus*a gure norberako bizimoldeen sortzailea dela. Gure bizitzearen aldeak oro eragiten dütü (kültüra, lana, hezküntea, aizina, jateko moldea...). Bakoitxaren bizi-ebilbidearen, bakoitxaren iraganaren ondorioa lizate.

gisa abiatzez⁴. Holaxe, eabilbide pertsonal batetan bermatzez, gure alkarrekilako abentüraren entelegatzen iseatüko niz, erran nahi beita oraiko eüskaldünen mintzajea, hots eüskara. Jakitüsek parka dizadaela, ez beitu gaüza handirik ikasiko ene bizitzeko gertakari elibatetarik kanpo.

2. Lehen dikotomia - Hiztuna: Eüskaldün berri *versus* eüskaldün zahar

Eüskaldün berri / eüskaldün zahar dikotomia har dezagün lehenik.

2.1. Definizioe irizpidea simple da, simpleegi ?

Eüskaldün zaharra da ama-mintzaje gisa eüskara üken düana edo lehen mintzaje gisa eüskara ikasi düana; hau da soziolinguistikak erraiten deigüna⁵. Ez da hemen lehen mintzajearen eta ama-mintzajearen arteko ezbardintarzüna hizkatüko⁶. Halere, üdüri zait lehen edo ama-mintzajearen irizpide simple hori ez dela üdüri düan bezain argi. Hori erakutsiko düt sarri.

Eüskaldün berria, aldiz, beste lehen mintzaje edo ama-mintzaje üken ondoan eüskara ikasi düana da. Kriteria, irizpidea arren da lehen mintzajea zoin izan zen.

Errealitatearen ezbardintarzüanaren deskribatzeko, lehen mintzajearen irizpide hori osotzeko, beste kategoria elibat sortü düe soziolinguistek. Eüskaldün horrek eüskara erabilten düanaren heinean ala ez, eüskaldün berri

⁴ Prefosta ene kasüa ez da ezarrunt, gizaldi baten edo biren planta izan zen, Maulen sortürrik ziren gazteena bena bai ere ordüan edo ondotik kantüko kanpainan, bazterretan bizi zirenena, Pettarran bereziki.

⁵ Euskaldun zahar: «*Lehen hizkuntza euskara izanik, euskaraz ondo ulertzen eta hitz egiten duen pertsona*» (Eusko Jaurlaritza-IVAP, *Soziolinguistika Hiztegia*: 60. or.); euskaldun berri: «*Lehen hizkuntza erdara izanik, euskaraz ondo ulertzen eta hitz egiten duen pertsona*» (*ibidem*: 59. or.).

⁶ Ama-hizkuntza: *Haurrak etxean gurasoengandik ikasitako lehen hizkuntza*» (Eusko Jaurlaritza-IVAP, *Soziolinguistika Hiztegia*: 20. or.); lehen hizkuntza: «*Haurtzaroan lehenbizi ikasitako hizkuntza, gero erabiltzen jarraitu dena*» (*ibidem*: 22. or.).

aktiba, eüskaldün berri pasiba, eüskaldün zahar aktiba ala eüskaldün zahar pasiba izan daiteke.

Lehen mintzajeak bi balira, eüskara eta frantsesa ala espainola, hatsarreko elebidün aktiba (*jatorrizko elebidun aktibo*) günüke bi mintzajeak erabilten balütü; hatsarreko elebidün pasibak eüskara entelaga lezake eta mintzatü ere, bena etxen frantsesa ala espainola erabilten dü. Eta holaxe eüskaldün edo erdaldün mota ezbardinak sailkatzen dütüe. Ikus Eusko Jaur-laritzak eta IVAP-ek 2010ean argitaratü düen *Soziolinguistika Hiztegia* (43.-45. eta 58.-70. or.)⁷. Irizpideak mintzaje-geitarzüna eta, elebidün izanik, bi mintzajeen alkarren erabiltea dira.

Halerik ere, kategoria ezbardin horik emendatürük ere, ama mintzajearen edo lehen mintzajearen irizpidea bera ez da argi. Parka ezadazüe bena ene kasüa hartzen düt. Aitetamak bata besteari xiberotarrez ari ziren, beren sortxeetan eta askazieki ere. Bena gure aintzinean seküla, gü haurrak, edo bai, testüngürü bakoitx batetan, aharratzeko. Behar ere ez zen üsü agitzen! Noiztenka, aita zena kexatzen zelarik, *zer telepete!*, *gaixo tipula!* edo *zurzüil!* ozen bat igorten züan, eta ontsa konprenitzen günüan zerbait oker egin günüala. Halere, ene bi anaie gehienentzat ez bazen ere, eüskara mintzaje arrotz bat zeitan ordüan, soinü harrigarrieki. Zentzügabeko erranaldi horietan, *hafla hafla, zirta-zarta, truku-truku, züuntaz, hapatakaz, ala jinjin txoria* edo holakorik entzüten nüanean senditzen nüan nola eüskara aberatsa zen, bizi, indartsü...⁸. Bena eneki beti frantsesez ari ziren, frantsesa ontsa ikasi behar nüala pentsatzez ikasketen kaüsitzeko, lan hon baten ükeiteko, eta beste.

Haatik bada zerbait xüentü behar düdala, lehen mintzajearen irizpidea- ren müga agertaraziko düana. Ama zenak erran zeitan ni eskolalat joan beno lehen eüskaraz mintzatzen zela eneki. Bena errejentsa zen eta bi urte- tan eskolalat joan nintzan. Alta, bi urte altexean hasten gira mintzatzen. Eta enetzat hoik dira erantzünik gabeko galtoak: zoin izan ziren ene lehen

⁷ Saillkapena hanitzex konplika daiteke: «*euskaldun berri bietan aktibo* (63. or.), *partzialki erdaldun- du bietan aktibo* (68. or.), *partzialki euskaldun berri bietan aktibo / pasibo* (69.-70. or.)», etab.

⁸ 2000an xiberotarraren onomatopeia horietaz ikerketa zientifika бүрүтү nüan: Les onomatopées rédupliquées en basque souletin, *Lapurdum*, V: 13-97.

hitzak? Eta eüskaraz ala frantsesez? Erantzünik gabe izanik ere, honartü behar da lehen mintzajearen irizpide hori ez dela lehen begikaldüan uste genezan bezain zorrotz, uste genezan bezain xüxen. Eüskara izan zen entzün nüan lehen mintzajea, bena heltü bada frantsesa lehen eman nüana. Ene bigerren urtean mintzaje ordarikatzea ezagütü düt. Ordüan, noiztenka, lehen mintzaje entzüna eta lehen mintzaje mintzatüa berezi behar günütüke, mintzazü beno lehen entzüten beitügü. Kronologiak bi lehen mintzaje ezbardin sor dezake, entelegatzeari eta mintzamenari lotürik direnak.

Holatan kontüan hartzeko den beste irizpide bat agertzen da eüskaldün berri / eüskaldün zahar dikotomia aztertü nahi denean, haur denborako mintzaje ikaste prozesüaren kronologia.

Beste gogoeta bat. Egün beste eüskaldün mota bat badügüla üdüri lüke, eüskara eskolan ikasi düen gazteak, etxen errezebitü ez düenak. Katategoria horrek ere molde batez eüskaldün berria / eüskaldün zaharra dikotomia eztabadan jarten dü. Nola sailkatü bi urte betatzen düenean Sohütako ama-eskolan sartü diren frantsesdün aitetamen haurrak, lizeoalat artino murgiltze eredüan eüskaraz ikasiko düenak?

Ikastolako eüskaldün gazte horik berri ala zahar dira? Zentzü hersian eüskaldün berriak dira entzün düen lehen mintzajea frantsesa izan beitzen, Xiberoko kasüan. Bena gero ama-eskolan eüskara entzün eta eman düe eta etxen frantsesa. Oro har, zer dira?

2.2. Sosaren bi aldeak: kutx ala pil - Ahalkea ala gabezia

Orai beste gogoeta elibat egin nahi nüke, eüskaldün berri / eüskaldün zahar dikotomia horri lotürik. Sofrimentüaren bi aldeak deitüko dütüt: ahalkea ala gabezia. Zonbaitentzat lehena, besteentzat bigerrena.

Ahalkea

Nola ez aipa eüskaldün zaharren sofrimentüa, beren mintzajea baliorik gabe zela ikusten züelarik, eskolan sartzeko tenorean baztertzeke zela ikus-

tean. Hareki zoan ahalke gorria aski aipatü izan da, haurtzaroan sortzen da eta bizi osoan бүрүкo xoko batetan egoiten da üsüenik.

Ama zenak kontatzen züan nola eskolalat joan beno lehen bere ahizpa gehienak frantses hitz elibat erakasten zütüan aurrider, eskolalat joaiteko haien aldia jiten zelarik bospasei urteko anaiak edo ahizpak osoki galdürrik ez izan zitean Iduze-Mendiko eskolan.

Kontatzen züan ere nola gero errejentsa izan ondoan, bigerren Mündüko gerla beno lehen zen ordüan, haurrak eüskaraz errezebitzen zütüan, frantse-
sa ez beitzakiaen. Haurren lehen lana zen üküztea, noiztenka ere zorrien elkitzea, eta gero bai eskola has zitekean. Bena batbatetan ikasgelan eüska-
rak bere leküa galtzen züan. Akademiako gomendioaren betatzez, amak, egünaren бүрүtik burü, txotx ttipiñi bat, *büxeta* deitzen zena, iganarazten züan ikasleengan. Istorioa ezagüna da. Eüskaraz mintzatzen zenak *büxeta* errezebitzen züan eta norbait eüskaraz mintzatzen entzütien bazüan *büxeta* hori emaiten zeion, pünitürrik ez izateko. Egünaren ürrentzean *büxeta* züan azken hori pünitü behar züan amak.

Zer sentimentü nahasirik üken behar zütüan ber egünean ikasleeki ama -mintzajearen baliatzez eta gero horrengatik pünitez! Behar ere egünko egünetan eüskara eskoletan sartürrik da eta haboro sartüko da, hain segur. Ildo hontan, Xiberoko ikastoletako oraiko arrakasta bozgarri da.

Gabexia

Bena nola ez aipa ere, sosaren, mirailaren beste aldetik, eüskara ez za-
kien edo ez dakien herritar gazteen edo zaharragoen gabexia. Ikasi nahi
edo ikasten düenentzat gaizki mintzatzeko ahalkea. Edo sordei, eüskara-
ren ez jakitea. Aitetamen mintzajeaz, erran nahi beita eüskaraz, gabetürrik.
Nork ez dü entzün eüskaldün zahar zombaiten galto hau gazte bati: «*Ba-
dakika eüskara?*», edo «*Eüskara etxen ikasi düka?*». Eta arrapostüa, ahape-
tik, frantsesez da: «Non, malheureusement, mes parents voulaient que
j'apprenne bien le français pour faire quelque chose dans la vie» «*Ez zori-
txarrez, aitetamek nahi zizüen frantsesa ontsa ikas nezan bizitzean zerbaiten
egiteko*».

Aspaldiko istorioa erranen düzüe, bai bena Xiberoan beste Eüskal Herriko lürraldeetan bezala gizaldi batez edo biz eüskararen transmisioea ükü-ratü züana. Eta bere ondorioak hor dira orano iraüten düenak. Geroa frantsesean zen eta ez eüskaran eta hori, ene ustez, ez da osoki kanbiatü, kanbiatzen hasten balin bada ere. Hortakoz izagarri inportanta da fenomeno horren entelegatzea, erran nahi beita familian haurrer eüskararen ez emaita, bere osotarzünean entelegatzea, gogoeta motz elibaten haratago.

Halere, beste gabezia mota izan daitekeala ere ohart gitean, eüskaldün zahar zönbaitentzat. Euskara batuaren ez ezagützea. Holaxe, ama zenak ez züan deus konprenitzen Euskal Telebistako eüskal katean. Eüskara ez ika-sirik eskolan, beren eüskara hon ez dela pentsa dezakee eüskaldün zahar horiek.

Ezkiribatzearen ez jakitea ere gabezia mingarri izan daiteke adineko eüskaldün zaharrentako. Eskolalat frantsesa jakin gabe joanik, eüskararen baztertzerä bortxatürik, eta orai eüskararen izkiribatzen ez jakiten, edo frantse-saren ortografiaz baizik.

Eüskaltzaindia hortaz ohartü da, aspaldidanik. «*Hala ere, hiztun batzuek, noizean behin eta okerretara, baztertuta ikusten dute euren burua, bizi duten euskalkia euskara batutik urrun dagoelako; baina ez dute baztertutik sentitu behar. Euskaltzaindiak, behintzat, ez du horrelako bazterkeriarik nahi; baizik eta nahi du euskaldün bakoitzak bere euskararekin bat egitea eta, era berean, euskara batuarekin bat egitea, batua harturik goi mailako erregistrotzat gainerako euskaldün guztiekin harremanak izateko*» erraiten züan (*Adierazpena - Euskalkien erabileraz...*: 2). Eta hau da helbüria: eüskaldünek oroek, batua ezagütü ez ükenik ere, ala bestalde eüskalkirik ezagütü ez ükenik, beren leküa ediren behar düe üngürüan diren mintzaje indartsüen eretzean. Eüskarak eüskaldün oroen beharra badü!

2.3. «Berri» ala «zahar» irizpide horren izatea

Hona orai eüskaldün berria / eüskaldün zaharra ezbardintarzün horri büriüz beste gogoeta bat. Eüskaldün zaharra zira, nahi ala ez, halaber eüskaldün berria. Eüskaldün berriak eüskara ikasi dü. Kalitate horrez, izate

horrez jabetü da; frantsesez erran ginirio *acquis* dela. Bena nahitaez eüskaldün berria ez da seküla eüskaldün zaharra izanen. Ordüan izate hori, eüskaldün berri izate hori, azkenean berezko da ere, frantsesez *inné*. Sortzez, berez, bata ala bestea ziradee. Eta gero marka hori ez düzüe elkitzen ahal, zueki badoa sekülakoz, sexüa bezala, larrüaren kolorea bezala...

Zentzü batetan izentatze hortan arrazisma mota bat ediren ginirio, hitz hori ontsa joaiten ez bada ere. Eüskaldün berri erranmoldearen giblean hierarkia bat leite zombaiten gogoan, ideologia herexa bat pürü. Eüskaldün berria egiazko eüskaldün ez lizateala, eüskaldün ez oso lizateala, eüskaraz ez beita ontsa mintzatzen, bere eüskararak haurtzaroareki edo herri, güne bateki estekarik ez beitü.

Ordüan bai, ikusmoldea hau balin bada, estigmatizazionea balin bada, kontüan har dezagün eüskaldün berriek indar handiak egin dütüela eüskararen ikasteko, eüskaldün zaharrek egin ez düena. Behar ere eüskaldün zaharretarik haboroena ez da gaitzeste hortan erorten.

2.4. Eüskararen familia transmisione baratzea – Ikerketa zabal baten beharra

Ama mintzajea haurrer ez emaita eüskaldün berri / eüskaldün zahar dikotomia horri güziz lotürük da. Ama mintzajearen transmisioeak ala transmisioe eskasak dikotomiaren egilea da. Fenomeno horren arrazuen entelegatzea zinez inportanta da, ene ustez, eüskararen geroa segürtatü nahi balin badügü. Ontsa konprenitzen balin badügü zertako gure aitetametarik gehiengoak bere ama-mintzajea ez düan eman, eüskara transmititzeko zoin balintzak, zoin alteko testüngürüa indarrean eman beharko dütügün argiago zaizkegü.

Prefosta fenomeno hori familia batetan ez da baizik gertatü. Eüskal Herri osoan ezagütü da. Halere uste düt Ipar Eüskal Herrian bere zernolakoak badütüala Frantziako estatüko ordünko politika- eta gizarte-egoerari lotürük beitzen. Ez emaita hori gizaldi bakotx batez igaran da, prefosta bazter orotan ez ber heinean. Maulen pürü ageri zen, Basabürüan berantago.

Badakigü Frantziako herrialde ezbardinetan bigerren mündüko gerlatik landako urteetan gaüzatü dela, molde ezbardinetan bada ere. Britainian ber fenomeno, erran nahi beita mintzaje propioaren ez emaita, Bretua hots, ezagütü da ere eta ber denboran apür edo hanitx, bigerren mündüko gerlatik landa, bietan hogeita hamargerren urteetan. Ordüan, Frantziako ordünko gizarte, ekonomia eta politika-balintzei lotürik zela erran dezakegü.

Fenomeno hori ontsa entelegatzeko, talde langei baten beharra badügü. Ikergei inportanta badügu konprenitzeko nola Frantzian esküaldeetako mintzajeak ordüan oroz gainti eta ez lehenago edo berantago ütirik izan zirela. Erran gabe doa lan talde zabal bat izan behar lizateala, soziolinguistik, psikolinguistik, bena bai ere ekonomian, soziologian jakintsüak ütartü behar lütükeana. Ikerketa hori beharrezko da orai kontrako bidea hartü nahi beitügü, eskolan xiberotarraren ikasteaz gain familian mintzajea emanik izan dadin nahi beitügü, transmisionearen arrapiztea hots.

Hau da desafio berria, eskolako ikastearen indartzeaz gain xiberotarra familiako mintzajea izan dadin Xiberoan, lehen izan zen bezala.

Ildo hontan, Joseba Intxaustiren züzendaritzaren pean Euskaltzaindiaren *Joanes Etxeberri* egitasmoa eramaiten düan lan taldeak datü inportantak ekarriko deizgüla pentsa dezakegü. Mintzajeen Historia Sozialak «*hizkuntzen denboran zeharreko gizarteko izaera-bizierak aztertu nahi ditu; iraganaren jarioan datozen gizarteko hizkuntzekiko usteak, zientziak, antolaerak, jarrerak, aldakuntzak eta abar ikertu nahi ditu (...) gizarteko gertakari bezala hartzen ditu hizkuntzak; komunitate linguistikoa du gogoan, bere baitan eta inguruko beste komunitate linguistikoekin harremanetan*» (2007, *Joanes Etxeberri* egitasmoa: 241. or.). Epe lüzeko ikerketa handi horrek eüskararen historia sozial osoa begistatü nahi dü, bena, nork daki, Iparraldeko eüskararentako bigerren mündüko gerlatik landako aldi berezi horren entelegatzen lagüntüko gütü.

3. **Bigerren dikotomia - alkarte linguistika: Eüskalkia, xiberotarra versus euskara batua**

Orai arte hiztünari interesatü ginen, eüskaldün bi mota horier. Oraidanik kuadroa alkarte linguistika dateke, komünitate linguistika, eta horrek era-

bilten düan mintzaje mota. Hau da eüskalkia eta euskara batua dikotomia. Eüskalkia, gure kasüan xiberotarra, komünitate linguistika bati lotürik da eta Xiberoko eüskaldünen euskara mota da.

Bigerren dikotomia hori hanitx eztabadatü izan beita, llabürrago nizate. Berriz ere, analisi zientifika eta kontzeptü teoriken bazter üztez, anekdota bat baliatüko düt hasteko.

3.1. Euskara batuaren beharraz

Züen artean balin bada orano deitzen den euskara batuaren beharra ikusten ez düana, hona istorio ttipi bat. Hiruretan hogeigerren urteak dira. Gipuzkoan gira, Azkoitian edo Azpeitian, bigerreanean segürrago. Xiberotar espartüña salerosle batek mila bat erosi behar deio hanko espartüñegile bati. Eüskaldün zela jakitez xiberotarra, aita zena egia erran, eüskaraz hasten da. Besteak, gipuzkoarrak, ez dü deüs entelegatzen, bena eüskara zela konprenitzez hura ere bere eüskaran ari zaio, giputzez. Ordüan xiberotarra, hura ere ezin entelegatüz, espainolez hasten da mintzatzen, gaizki prefosta, Mauleko arrüetan ikasi beitzüan gehienik. Eta holaxe tratüa egin züen.

Zer erakusten deigü anekdota honek? Lehenik, hain hürrün ez diren bi eüskalkidünek ez züela alkar konprenitzen. Ber mintzajea ükenik ere, beste baten beharra üken züela, komünikatzeko mintzajea.

Bigerrenik, alkar konprenitzeko eüskaldünen beharra hau dela, alkarrekilako eüskalki bat edo hobe erranik eüskara mota bat, lürralde, lekü bati lotürik ez dena. Hau da orai euskara batuak betatzen düan egitekoa. Hatsarrean eüskararen idazteko sortü züen eta ondotik gero eta haboro ahozko eüskara gisa erabili izan da.

Deitzen güntüan espainolak gü bezalako eüskaldünak zirela agertü zen, manexak ziren bezala. Ondotik, eta behar ere, hegoaldekoak erranmoldeak espainolak ordaritü dü, Atharratze Donostia edo Bilbo beno hegoan haboro balin bada ere. Izen ordarikatze hortan euskara batuak ere bere eragina üken dü.

Gaüza hanitx erraiteko lizate euskara batuaz eta erranik izan dira. Hau da nik aitzinatüko düdan bat. Deitzen dügün euskara batua, ahozkatürik denean, bakotxa ez dela, ütxüra hanitxeko dela. Tresna bat da alkar konprenitzeko, eüskaldünek moldatzen düena beren eüskalkiaren arabera bat balin badüe, solaskidearen, testüngürüaren arabera. Haütüa simple da, euskara batua ala eüskararik ez. Bestelan, beste eüskalkiak oro ikasi beharko güntüke. Hori ezinezko da, dilektologa edo eüskalzale errabiatü elibatentzat salbü.

3.2. Euskara batuaren lehen ürratsak (1964) – Eüskaltzaindia eta eüskalkiak

Parada da zuetarik ez dakiener jakinarazteko, besteer oritarazteko, xiberotar baten partehartzea euskara batuaren abentüra hortan, Jean-Louis Davantena. 1963-1964 ikasturteko Baionako bilküretan izan zen. Aste oroz beste zonbaiteki lan egiten züan eta han ordüan ezagützen dügün euskara batuaren lehen ürratsak egin ziren, Txillardegiren bürüzagigoan, 1964ko agorrilaren 29-30eko biltzarrean ürrentüz. «*Euskara batuari bürüzko lehen ürratsak hor finkatü güntüan, bereziki ortografiako lege orokorrak. Proposamen bezala Euskaltzaindiari eskeini ginitzon, eta honek bere gain hartü zütüan, 1968ko üdan, Arantzazuko Biltzarrean*» erraiten deigü (Davant, 2011: 172.or.).

Eüskaltzaindiak 2005ean *Nirekin yaio nun - Txillardegiri omenaldia* argitaratü düan libürüan, Jean-Louis Davantek ordüngo erabakiak emaiten deizgü (210-216. or.). Aitzinsolasean partaideek hori galtatzen züen: «*Batasunari buruz, euskaltzale guziei erabaki hauek betetzen hasteko eskatzen diegu; eta bereziki Euskaltzaindiari egiten diogu dei bat, bere aipamen guziaz gure erabaki hauek aztertu ondoren onar ditzan*».

Ordüan bai, Xiberoak ere Jean-Louis Davanti esker euskara batuaren lehen hatsartzea lagüntü züala erran dezakegü. Ondotik, batarzün helbüri hori xiberotarrari aitzü eginik ez zela argiki agertü zaigü, gero eta argikiago. Batak bestearen beharra badü eta ükenen dü, batak bestea osotzen dü. Lana da mintzaje bakoitxaren leküaren definitzea eta plantan ezartea, Xiberoan

beste euskalkien lürraldeetan bezala. Hau da euskalzaleen, agintarien, haütetsien lana eta azkenenean oroz gainti euskaldüna. Horiek noiz, nola, noreki, zertaz euskara erabilten düen deliberatzen beituë⁹.

Argi izan behar da hori ez dela igaranezina, euskararen bi moten arteko egoera dinamika beita. Molde batez egünoroz aldatzen da, mintzaje barie-tate bakoitxaren erabileraren arabera. Prefosta, xiberotarraren aldeko min-tzaje politika pübliko ausarta lagüngarri dateke, ez xiberotarra batutik zain-tzeko bena bai, oroz gainetik, frantsesetik zaintzeko.

Oritaraz dezadan Eüskaltzaindiaren xede eta egitateetan eüskalkiek be-ren lekü osoa bazüela eta badüela. VIII. Eüskaltzaindiaren Biltzarreko Adie-razpenak 5. puntuan hau zioan: «Euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak aztertu eta landu behar direla uste du Euskaltzaindiak, ortografia eta hizkuntzaren azpe-gitura zainduz» (Euskera, XXIV-2: 103). Idatzian, ortografia bakarra onartuko da batuan nahiz euskalkietan; izan ere, euskara hizkuntza bakarra baita, ez hiz-kuntza asko» (Adierazpena - Euskalkien erabileraz...: 1). Eta hau da Xiberoan egiten dügüna alkarrekilanko ortografiaren erabiltez, Eüskaltzaindiarena, orai euskaldün oroena, püntü bakant eli bat orano argitürik ez balin badira ere. Mintzajearen azpiegitüra begiratzen dügü ere, *bürüa* idaztez adibidez eta ez *bürüia* edo *büia*, izen hau *bürü* (*buru*) beita.

«Euskalkiak baino lehen hor da euskara» argitzen dü Eüskaltzaindiak (Euskera, XXIV-2: 105). Hau da: euskara Xiberoan xiberotarraren bidez gaüzatzen da, bena xiberotarra euskara da, euskararen Xiberoko itxüra. «Zuhaitzek ez diezagutela basoaren ikusbidea galeraz, otoi» (*ibidem*: 105). Xi-berotarra zühaitz bat da, besteen artean; alkarreki euskararen oihana egi-ten düe.

⁹ 2001ean, Souletin et batua: pour un duo plutôt qu'un duel artikuluan, xiberotarraren eta eus-kara batuaren arteko funtzioer eta erabilte alorrer gogoemaiten hasi nintzan (*Madeleine de Jauré-guiberry Omenaldia – Hommage*, Donostia, Eusko Ikaskuntza: 77-84).

3.3. Diglosia eta triglosia nozioneetzaz Xiberoan - Xiberoko mintzajeetzaz¹⁰

Azkenean, orai, Xiberoan, gure herriala jileen mintzajeen kontüan ez hartzez (gaztelania eta portugesa bereziki), bi, hiru edo lau mintzaje ginirio. Zoin dira?

Lehenik xiberotarra, eüskararen hebenko forma mentez mente mol-datü zena. Ondoan edo gainen, frantsesa, eüskara abantxü jan düana. Behar ere ihardokitzea adelatzen eta indartzen da eüskalzaleer, ikastoler, eüskal irratier esker, besteak beste. Ondotik, jin berri den bat badügü, batu famatü hori, gero eta haboro sartzen dena ez Xiberoko frantsimenter frantsesean, bena bai eüskaldün zonbaiten eüskaran, gazteen eta eüskalzaleenean bereziki. Halere, batuak ez dü xiberotarra ordarikatzen. Ezagützen düenek baliatzen düe xiberotar ez diren eüskaldeneki mintzatzeko.

Batuaren eragina da nola xiberotar lexikan sartzen den gero eta haboro. Berri txarra dea hori? Ene ustez, ez, frantsesak hartü züan leküa hartzen beitü apür edo hanitx frantses hitzen ordarikatzen. Eta hari esker beste eüskaldünekin eüskaraz elesta gaiteke.

Azkenean joküan sartzen ari lizatean laugerren aztaparlüze bat günüke, Xiberoan mementoko lekü zinez ttipia düana, inglesa, komünikatzeko nazioarteko mintzajea. Xiberoan bizi direnen artean, enpresa elibatetan baizik edo bigerren mailako edo ünibertsitateko ikasle zonbaitentzat eraginik baizik ez dü.

Hots Xiberoan, oro har, triglosia mota bat ginirio, xiberotarra Xiberoko mintzajea, ezagütü beharko dügün batua, entelegatü pürü, eta nahitaez indartsü den frantsesa.

Prefosta triglosia nozio hori ez da zentzü prototipikotzat hartü behar, erran nahi beita hiru mintzaje edo mintzaje barietaten arteko funtzioen eta

¹⁰ Hortaz ikus adibidez Txomin Peillenen Les langues de la Soule artikülüa (*Le Pays de Soule*, 1994, Pierre Bidartek bildü dütüan testüak, Baigorri, Izpegi: 259-274).

erabilte alorren banaketa orekatü eta egonkorra lizatekeala. Aitzitik, frantsesak, xiberotarrak eta euskara batuak funtzio eta erabilte sail ezbardinak badütüe, etengabe kanbiatezen ari den prozesü batetan.

Xiberotarren artean batua erabilirik ez da; lehen mailako erakaskuntzan ez da erabili, ikasleer amiñi bat erakusten balin badeiee ere. Orai artino bere eragina hiztegian borogutzen baizik ez da eta errezebitzen diren Xiberotik kanpoko euskal ikus-entzünezko medietan. Batua ez da Fergusonen 1959ko diglosia kontzeptü klasikan bezala goi mailako mintzajea, Euskadin den bezala. Xiberoan administrazioko mintzajea frantsesa da, ez batua. Bena frantses-xiberotar diglosia hori ez da ere Fishmanena, lehen heltü bada izan zen bezala. Xiberotarra erakaskuntzan sartürrik da eta bere leküa handitzen ari da, herriko etxeetan bere lehen ürratsak egiten dütü. Mintzajeen eta eüskararen bariatateen arteko zatikatzea ez da iraünkor. Hots, Xiberoan *stricto sensu* diglosiarik ez dügü, ez ere triglosiarik¹¹.

4. Ürrentzeko. Eta gero?

Ene mintzaldia ürrentzen da. Parka ezadazüe, nitzaz sobera mintzatü niz, uste beinüan eüskaldünen denen ebillbidea bezala, enea ere baliagarri zela aipatü nahi nütüan bi dikotomia horien amiñi bat argitzeko. Azpimarra dezadan dikotomia horik ez direla eüskararenak baizik. Mintzaje gütitü dene-nak dira, molde batez edo bestez, eta Mündüko beste mintzajeen salbatzeko eta indarberritzeko esperientziatarik hanitx ikastera badügü.

Mintzaldi honetan deitzen den *corpusa* ez düt aipatü, Xiberoko eüskalkiaren forma bera. Halere, bi hitzez erran dezakegü xiberotarra gero eta haboro batuari hüilantzen zaiola, nahitaez.

Eüskal Herri osoan gazteen hizkera gero eta nahasirik dela ohartzten da: batua, eüskalkia, ezagützen balin badüe, eta deitzen diren *erderakadak* nahasten dira. Xiberoan ere holako zerbait gertatzen dela uste düt, ikertü

¹¹ 2011an, *Bat* aldizkariak Mikel Zalbideren diglosia kontzeptüaren ikerketa kritika lüzearen baliatzez diglosiari бүрүzko dozier monografika argitaratü dü: *Diglosiaren inguruan*.

ez badüt ere, zerbait legezko dena lingüistikaren ikuspüntütik. Eüskaldün gazteek xiberotarra etxen edo ikastolan üsüago ikasi düe, gero eüskara ützen ez badüe batua ikasten düe eta nahi ala ez frantsesa esküko badüe, azken hau bazter orotan entzüten eta irakurtzen baita. Arren gure eüskaldün gazteek hiru ütürri ezbardin badüe mintzatzeko; hiruak baliatzen dütüe. Ondorioz, xiberotarra batuari gero eta haboro hüilantüko zaiola pentsa dezakegü. Gure lana da xiberotarraren berezitarzünen begiratzea.

Hatsarrean Xiberoak eta xiberotarrak bat egiten züela erran düt. Bai hau da, bata bestea gabe deus ez da, lürraldea mintzajea gabe. Egia hori beste manerala eta nik beno hanitxez hobeki erran züan Jean-Louis Davantek. Aipatzen düt: «...*Euskal Herria da hau, bere nortasun berezia daukana zalantzaz barik: euskara dugu hemen lehenbiziko hizkuntza, herriko tontor eta erreka guziek mintzo dutena toponomia guzian. Ez da zuzen ez egoki euskara bere kabiatik bota dezan bigarren hizkuntza dugun erdarak, kukuak egin ohi duen bezala*» (Euskera, 2002: 648. or.)

Behar ere, erran bezala, xiberotarraren itzaltzeari ihardokitzearen adalatzten eta azkartzen ari da eüskalzaldeer, eüskal alkarteer, ikastoler, gaü eskolari, Xiberoko Botzari esker, bena ere haütetsier esker Herri elkargoak erakusten düan bezala. Düala güti Ziurtagiriaren elkarteak Xiberoko Herri elkargoari «Bai Euskarari» ziurtagaria eman deio «Bidean» labelareki. Ziurtagari hori esküratzen düan Iparraldeko lehen herri alkargoa da. Eskolak, ikastolak bereziki, gero eta pezü handiago dü xiberotarraren transmisioan, familia-transmisionea arrapitz dadin anartean¹².

Euskaltzaindiak bere aldetik ere hortan partehartzen dü eta partehartü nahi dü, erran gabe doa bere jakitate alorretan. Aurten Jüje Etxebarnek Xiberoko Gaü Eskolarekin izkiribatü düan *Gramatika Emendakinak. Zuberoko euskaraz* libürüa argitaratü dü eta Txomin Peillenek adalatü düan *Egiategiren filosofo huskaldunaren ekheia (bigarren liburukia)*, azken hau XVIII. mentekoa. Euskaltzaindia lehen xiberotarrezko argialetxea dela erran dezakegü. Sü Azia alkarte lagündüko dü haren toponimia biltze la-

¹² 2011-2012 ikasturteko sartzean lehen aldikotz ehün ikasle beno haboro hartü düe Sohütako ikastolan.

netan Euskaltzaindiak; halaber Ikas pedagogia zerbitzuarekin lan egiten dü, dokümentüen xiberotarrezko bertsioren moldatzen.

Egün berean ere *Eüskararen egüna* ospatzen da Maulen, eta hori lehen aldikotz. Zonbaitek erranen düe marka hona ez dela, norbait edo zerbait trenpü txarrean denean edo iraganeko ala hil denean ospatzen dügüla, lagüntzeko edo oritarazteko. Bena esperantxa keinü gisa ere ikus genezake. Eta hori dateke ene ikusmoldea.

Hots, xiberotarraren geroa gure esküetan eta, hobe, gure ahoetan da. Nik lüzez biziko dela sinesten düt, zinez. Nola, zer plantan? Beste galto bat da.

Bibliografia

ATXAGA, Bernardo, 2005, *Lekuak*, Iruñea, Pamiela.

BOURDIEU, Pierre, 2001, Esquisse pour une auto-analyse, *Science de la science et réflexivité*, Paris, éditions Raisons d'agir, 184-222.

DAVANT, Jean-Louis, 2002, Euskarak Iparraldeko elizkizunetan duen presentzia-
ren aurrean zer?, *Euskera*, 47-2, Bilbo, Euskaltzaindia: 643-648.

———, 2005, Baionako biltzarra (1964), *Nirekin yaio nun - Txillardegiri omenal-
dia*, *Iker* 17, Bilbo, Euskaltzaindia: 207-216.

———, 2011, Monzon, kältüra gizona, *Monzon pastoral*, Johaño Bordaxar idaz-
lea, Larraine: 172-173.

EGIATEGI, Jüsef, 2011 [1796-1797], *Egiategiren filosofo huskaldunaren ekheia*, bi-
garren liburuki, Txomin Peillenek paratua, Bilbo, Euskaltzaindia.

ETXEBARNE, Jüje, 2010, *Gramatika emendakinak Zuberoako euskaraz*, Bilbo, Eus-
kaltzaindia.

EUSKALTZAINDIA, 1979, Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak.
Euskaltzaindiaren agiriak, *Euskera*, XXIV (2. aldia) - 1, Bilbo: 101-106.

———, 1999, Zuberoako herri eta herritarren izendegia, *Euskera*, separata, Bil-
bo / Bilbao, Euskaltzaindia.

———, 2004/03/26, Adierazpena - Euskalkien erabileraz Irakaskuntzan, Komu-
nikabideetan eta Administrazioan, www.euskaltzaindia.net.

EUSKO JAURLARITZA-IVAP, 2010, *Soziolinguistika Hiztegia - Euskal Soziolinguistikaren eremuan erabiltzeko*, Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

FERGUSON, Charles A., 1959, Diglossia, *Word*, 15, New York: 325-340.

FISHMAN, Joshua A. 1967. Bilingualism with and without diglossia: Diglossia with and without bilingualism, *Journal of Social Issues*, 23-2, Malden (USA): 29-38.

INTXAUSTI REKONDO, Joseba, 2007, *Joanes Etxeberri egitasmoa (2007-2008)*, *Euskera*, 52-1, Bilbo, Euskaltzaindia: 239-267.

ZALBIDE, Mikel eta beste, 2011, *Diglosiaren inguruan. Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 79/80, Andoain, Euskaltzaindia-Soziolinguistika Klusterra.

Mintzo haren ohoreagatik

PEILLEN, Txomin
Euskaltzain emeritua

Jusef Egiategik düala berrehün eta hogeï ta zazpi hala idatzi züan. Begietarik hürrün bihotzetik hürrün hala ziozüe hanitxek, halere, Frantzian Behera lanak edo sortzeak bizitzera bortxatüak izan giren frankok eüskaren ikasteak eta ikertzeak Kartielean egoiteak bezainbeste berotü gütü. Püntü batez, eüskaraz ezkiribazale zuberotarren erdiak paristarrak ginen erran nahi beita lauetarik biga.

Alta gure gazte denboran eüskara mintzatüa bizi bizirik zen eta gerla aitzinean züberotar ezkiribazale zonbait izan zen. Geroago, pastoralak ezkiribazaleak berriz sortüko dütü eta hortan eseiatü direnak hamarna bat dira. Halaber, eüskaltzale sühar zonbaitez medioz eüskara irakasten hasi da, gure mintzajea gibel ari zelarik.

Halere gure, mintzaje arraro eta txipia, gure üskara, manex mintzajeak beno haboro estüdiatürik izan da. Leizarragak düala lauehün eta berrogeï ta bat urteetan, 1571.urtean bere ützülpeneren ondotik bildü eta eman zütian hitzak badütügü ; Oihenartek 1638.an hantik 67 urte gure mintzaje sübertea aipatzen dü; *Notitia Utriusque Uasconiae* delakoan.

Artean, hamazortzigerren mentean Egiategik gure euskalkian idatzi badü ere ez dü gramatkarik ez eta hiztegirik egin Larramendirenak baizik erabili. Haleikere, hamazortzigerren mente hortan Jean Philippe de Bela sohütar generalak Zuberoako üskararen aipamen lüzea egin züan, hiztegi txipi bate-tan lau ehün hitz eman zütian herrokatürik: herroka bat ziberotarrez, beste herroka bat Larramendiren Diccionario trilingüetik hartürik eta beste biga

espainolez eta latinez. Lista hori Iruineako *Fontes Linguae Vasconum* delakoan agerrarazi nüan.

Oihenarteren ondotik, hantik berrehün bat urte geroago Intxauspe züberotar kalonjeak, Züberoako aditzaren lehen estüdio handia egin züan. Emmanuel Inchauspek 1858 Baionako Lamaignèrenean, *Le Verbe basque* ederra agerrarazi züan, bena ez bilha *Lur* entziklopedian haren izena nahiz urteetan lapurtarrez eta züberotarrez idazten ibili den, hamabost aldiz agertü den *Eüskaldünaren gütüna* Napoleon III.aren denboran, 1855.an idatzi.

Denbora berean 1856.urtean Agosti Xahok eta Urrüstoiko Antoine d'Abbadie jaunek argitaratü *Dictionnaire basque français, espagnol et latin* delakoan züberotarra aipatzen delarik, azitzin solazean, bearnesa eta gaskua ontsa ezagützen zütialako lehentze erakusten dü ez dela eüskara suberterik xahü edo garbi denik.

Hemeretzügerren mentean, Berboaz, aditzaz baliatüz, agertü ziren edo agertü gabe ziren Intxausperen lanez baliatzez, Louis Gèzek *Eléments de grammaire basque (Dialecte souletin)* izenarekin Züberoako mintzajea nola ahoskatzen den eta zer ortografiarekin, gero zer gramatika düan eta azkenik *Vocabulaire Basque-français*, eta *vocabulaire français-basque*. Baionan Lamaignèrenean 1875. urtean agertü zena. Mintzajea osoki esplikatzen zaikü ben, bena txikana güzietan sartü gabe denek egiten dütügün hüts zombait badütü, bena familiaz eüskaldün ez zen horrek merezimentü izigarria badü.

Hogeigerren mentean de Jaureguiberryk jauna atzinekoen bien aditz bilketa berritüko dü bena lana lo egonen da. Hogeigerren mentean ere bospasei hiztegi aski hunak agertü edo bildü ziren, denak apezek eginak Foix larraintarrarena, Mizpiratzegirena; Erbinena eta Larrasquetena. Azken honek züan berriz züberotarraren ikertzea gorenik eraman *Le Basque souletin nord-oriental* 1934, *Le Basque de la Basse-Soule Orientale*, Klincksieck, Paris 1939 direlakoak agertüz, baita Larrasquet mintzaje horren fonetika, mintzoa metoda berriekin bildü.

Orhit gitean ere aita Junes Casenave Harigilek züberotarraren gramatika oso bat ezkiribatü düala, güti ezaguna Sü Aziak Maulen agerrarazi züana *Züberotar gramatika* Züberoatik kanpo eta hobeki ezagütürük izan zedin. Bes-

tainez, bi hiztegi egin zütian HIZTEGIA I, *Français-euskara züberotar eüskalkitik abiatzez* 1989.an Ozazeko Hitza argitaletxeak emana eta HIZTEGIA II, *Euskara-français* Hitza, Ozazekoak, 1993. Azken hontan zuberotar aditz normalizatüa emaiten deikü eta ürrentzean erran zahar parrasta bat.

Gure mintzajearen ikasteko eman züan *Ziberoan eüskaraz*, Sü Aziak Maulen 2000.urtean argitaratüa. Gure Junesek gure mintzajea ohoratü eta dinitatea handia eman dio, bai eta eüskaldün gazte hanitx eüskara ikastera eta hobetzera eraman, haren ondotik, xiberotar libürü eta gramatika oroek Eüskaltzaindiaren ortografia jarraitzen düe.

Aditza dela-eta beharbada herri batetik besteala bildü diferentziekin zuberotar izan eta üken aditzeen biltze handiena Pedro de Yrizar jaunak egin züan, *Morfologia del verbo auxiliar souletino (estudio dialectológico)* Euskaltzaindiak Bilbon, 2002.an agertua.

Urte luzeetan züberotarra irakasten ebili zaikün Jüsef Etxebarne, beregainti gramatika simple eta argi bat eman deikü, aurtan Euskaltzaindiak Sarako idazleen feidan erakutsi düana. AEK-ko eta gaüeskoletako esperientziatik ikasia. Libürüaren izena *Gramatika emendakinak Züberoako eüskaraz*. Etsenplü hanitxekin bere praktikotarzüna erakusten dü.

Horrez kanpo Etxebarnek barnetik izigarri ontsa ikasi beitü eüskara, frantsetik eüskarala ützültzale haitü agertü zaikü.

Berriki, eta Coyosen ondotik Michel Etchebarne frantzimant ikertzaleak lan sabanta eman deikü: *Dynamique historique de la langue basque, variation dans l'espace et changement dans le temps*.

Orai Batista Coyosen aldia

Batista Coyosek, bere tesiarekin Züberoako mintzajearen ezagützeari beriz, aspaldiko partez, unibertsitateko borta zabaltü deio eta libürü batetan «*Le parler souletin des Arbailles*» (Une approche de l'ergativité) Pariseko L'Harmattan etxean 1999.urtean eman. Badakit bati edo besteari entzünik Eüskaltzaindian unibertsitateko jente sobera badela, eta sabantegi girela, bena ez düt ezagützen mintzaje bat estüdiatzen ez denik non eta mintzaza-

liek ezpadakie ezkiribatzen. Barnetik jakiteak ez dio ihuri ere minik egiten, idazle denari gütiago.

Bestalte, Batista Coyosek züberotar ez diren eta espezialista ez diren euskaldunentako, gure mintzaje txipia zertan den ezagutarazteko beste libürü bat bi mintzajetan eman deikü *Xiberotarra-Zuberera* (Le dialecte basque souletin). Hortarako bere jakitatea egin düan lan batetik horra zaio. Konseilü Generaleko zerbütü bat abiatü züan euskararen eta bearnesaren althe, bena euskaldünak baizik ezpeitziren aski zotükatzen Batistak proposatü züan Mintzaje Politikaren zerbütü bat, haren, ondotik *Office publique de la Langue Basque*, Euskararen Erakunde Publikoa Baionan Konseilü Orokorrean sortü dena.

Ez deiziet Batista Coyosen bigerren libürü aberatsean irakurten direnak oro aipatüko. Coyosen hitzetan:

«Liburu hau zuberotarrentzat, beste euskaldunentzat eta bai ere zuberera ezagutu nahi duen publiko zabalagoarentzat egina da. Euskalkiaren historia, literatura bere ezaugarri linguistikoak bere egoera soziolinguistikoa aurkeztuko ditugu, besteak beste. Aurreiritziei, klaxeei nagusitzea da helburuetarik bat hori datu sakonen bidez...»

Bigerren kapitülüan xiberotarra historian gainti, Jakilegoa zaharrak emaiten deizkü, Hirurgerren kapitülüan Oraiko zubereraren egoera. Zertan den gure mintzajea eta gure jentea zeren errepublika hasiz geroztik Ziberoak jenteen erdia beno haboro galdü beitü, eta mintzajeak min hartü. Ondotik, aipatzen deikü Institut de Sondagek eta besteek egin inkestak jakiteko nor eta zonbat euskaraz mintzatzen zen Ziberoan, 89.an hasirik 2001 artino, hortik idoki da hiru zuberotarretarik bigek zerbait badakitela, erdiek mintzatzen bena oroz gain zaharren artean. Mila bizizaleetik goitiko herrietan karrikan, arrüan % 6 baizik ez dü euskara mintzatzen.

Laugerren kapitülüan. Beste euskalkiekin zer diferentzia düan? Beste hanitxek galdü düen akzent edo azentua kontserbatü dü züberotarrak eta ü-rekin bearnesetik hüllantzen bada, beste zonbait aldiz, manexa da gaskoinetik hurbilago. Hitzetan badütü züberotarrak besteetan galdü diren hitz zaharrak *igaran* eta ez pasatu, *heltü* ez arribatu edo alleatu, eta beste hanitx haleikere manexek bezainbeste hitz, okzitanoari hartü deitzogü bena ez be-

rak. Aditzean, geroaldi zaharra erabilten dügü (*nizate* ez izanen *niz*, *düiket* ez ukenen *düt*), eta hika, noka besteen gisa üsatzen badügü garaztar zonbaitek ezagützen düen zuka/ xüka zaharrak ere bai begiratü. Mintzatzean Europa aldi hontan entzuten ez direnak hanitx ontsa begiratü dira Ziberoan «ph» apho, «th» athe, «ph» phakatü, «kh» akherra orano erraiten beitaügü.

Bosgerren kapitülüan. Aüzoko mintzajetan züberotarrek hartü hitzak: bearnesa, espainola, frantsesa eta euskara batua. Zeren erraiteko hartzen den espainoletik edo frantsesetik eta lehen bearnesetik sailka emaiten da, sail zonbaitetan güti, lehen espainolari orai euskara batuari. Hedabideetan euskara batuari irratietan hala nola Xiberoko Botzean telebisten eta kazeten bidez; euskal eskoletan euskara batuaren hitzak erabilten dira. Teknikan, berriki mekanikak hantik heltü beitera amerikano hitzak sartzen dira, lehen bearnesetik hartzen ziren bezala. Administrazioe hiztegian frantsesa nahastent da euskararekilan.

Argi da Batista Coyosentako gure zokoko mintzajea eta euskara batua ez direla etsai bena bakotxak bere eremüa badiala, kartielekoan, eüskalkian pastorala, khantorea, poesia eta euskara batuak eskola liburuak eta beste euskaldunekin erabilteko.

Seigarren kapitülüan. Zer emaiten den ikusteko eta entzütoko euskaraz biltzen dü pastoralak, maskaradak, komediak, kantorea, bertsolarien formatzea.

Euskararen irakastea eskoletan, 1972, düala berrogei urte Margaita Etxartekin abiatü ikastolak orai bi lekü badütü bata Sohütan Epherre ikastola (historia zerbait ikertü dugünek badakigü Belako jaunen jauregia izan dela eta kasi segür gira Erreboluzioe handia beno lehen Egiategi eüskal filosofoa hor lan egin züala, hor baitzegoen errabili züan Larramendiren hiztegia), AEK-k badü Ziberoan *Lamiña Gaiü eskola* eta üdan ikastaldi luzeak egiten.

Hatsarrean txipiekin züberotarra beita erabilten *Ikas-ek* badü pedagogia lekü bat Maulen. Lan hortan dabila ützültzen edo eüskaraz züenki idazten *Sü Azia* izeneko elkarte. Ikusgarrien, komedien eta eüskarazko programak sortzen Maulen *Hebentik* elkarteak lan emankorra egiten dü.

Komunikazio hedabideak

Ahozkoak dira bi irradi, bata *Ziberoko Botza* abantxü osoki euskaraz Züberokoan edo Manexekoan Euskal Irratien elkargoan sartürük Zuberotarren erdiek entzüten omen düe. *Radio Mendililia*, frantses irratia da, berriak Radio France Internationaletik emaiten dütü, euskal müsika hanitx eta egünean Marzel Bedexagarrek euskarazko ezkiribü zenbait irakurtzen dütü. Euskal telebistan batzük Iparraldeko emankizunari so egiten düe, bai eta futbolari, gure zokoko mintzajea pastoralen errepikapenak badütügü. Frantses telebistan abantxü deus ere ez.

Kazetak dakizüen bezala *Le miroir de la Soule* da frantses ortografia euskaldünarekin nahasirik kronika bat aldi oroz agertzen züan. Elizaren *Autour du clocher Zeinu ützüilian* J.L. Davanten kronikaz kanpo deus ez da. Batzutan *Herrian* zerbait bada zubereraz.

Eta zer egiten düe administrazionek eta herriek?

Euskal herriko historia irakurten bada urte hanitxez Elizak züan Eüskara irakasten haurrek katixima ikas zezen, gero Artxu errejentak frantsesaren irakasteko *Uskara eta franzes gramatika*, haurrentako 1852. an ezkiribatü züan Amiküzeko eta Züberoako mintzajeak botitüz. Altzaiko eskolan 1950-1960 artino Maddalen de Jaureguiberry Artxuren alegiak irakurtzera jiten zen, gero deusere 1972.an ikastola sortü arte, bena ordüan non zen gobernüa ?

Eskola publikean ez da aisa sartü bi mintzajen irakastea. Enseignement primaire edo Lehen mailan Mauleko kantonamentüan haurren %22ek kate hori jerraikitzen züen eta bizpahiru oren %47. 2005ean, orai Atharratzekoan %18 baizik, bena %60ek bizpahiru oren astean.

Bigerren mailan, kolejoan Maulen %11 bi mintzajetan, eüskara mintzaje bezala %20 Mauleko, %60 Atharratzekoan kantonamentüan.

Erran behar da maila güzietan jenteek hanitxez haboro galthatzen düela hala nola %92 etxeko Urdinarben eta %100 Idauze Mendin. Haurrentako euskara galthatzen denen artean betikoa entzüten da hobe lükie anglesa

ikasi eta haberoenak, norekin mintzatuko dira anglesez Maulen, Atharrazten edo Urdiñarben? Eskola pribatuek ez dūe bi mintzajen erakastea, elebidun erraiten dena eskentzen.

Euskara zerbaitetarako ager dadin lehen urrets txipia herri eta bide seinaleak euskaraz ezartea izan zen. Gero *Xiberoa herri elkargoak*, herriak oro biltzen dütianak hortarako politika bat abiatü dü: lehenik Euskararen libürü xuriak bi mintzajetan argitaratü. Herri elkargoak Arozeko eskola bat erosi dü ikastolarentako eta egoitza zaharren leküan ikas gela bat, haurzaintegi bat, haurren txostakagia bat, lo egiteko günea eraikitzen ari.

Seinale elebidünak pakatzen dizkie herrier *Xiberoa* herri güzien elkargoak Maulen osoki eginik da eta mera sozialistak Barbe-Labarthek euskararen hedapenerako politika bat abiatü, Atharretzen ere handixena, bena Santa Grazin bortxatürrik egin düe, alegia turismari ogen eginen züala. Elkargoa horrek 2005.an ikastolen alteko DVD bat, AEK-ren irakas material bat eta Ikasek züberotar haurrentako egiten dütüen libürüak sosez lagüntü.

Hau da Batista Coyosen libürü horrek pentsarazten deiküna.

Batista Coyosen libürüen artean lan sabant hau aipatüko deiziet .*Le parler basque souletin des Arbailles*, Parisen René Descartes unibertsitategian irakurri züan tesia da. Hatsarrean besteek zer dioen ergatibitate forma bereziaz, euskararen originaltarzüna egiten düana, bena ihuren alte jarri gabe eta hola dio :

On évitera au lecteur les querelles entre courants, les divergences théoriques de point de vue et d'objets d'étude, qui règnent dans la communauté des linguistes (Avant-Propos aipatü libürüan 11.or.)

Eta berak haala labürtü züan bere lana:

Lan honen xedea bikoitza da, nahiz bereziki, Frantzian mintzo den zuberera izeneko euskal dialekto ahularen aldaera baten azalpen sinkronikoa izan. Euskalki edo dialektoarekiko hizkuntza ikerketaz urriak dira, sarri labur eta zaharrak. Lan hau, haren oraingo lekukotasun bat da.

Honela bada, eta elkarren ondozka, hala fonetika eta fonologia nola izen – eta aditz sintagmaren egitura aurkezten zaigu. Ikertzen

dira halaber, sintaxi harremanen adierazgailuak, perpausaren baita korreferentzi harreman batzuk, aditzen baliotasuna (argudiozko moduloa) aditzera emaniko eginkizun semantikoei dagokionez - eta baita ibilbide diatetikoa ere. Azkenik, hizkuntzaren dinamikari buruzko argitasun batzuk proposatzen dira.

Euskal hizkuntzak kasu-adierazle ergatibo nagusi bat du. Ikertzen da zein eratako motari dagokion honako esparruetatik bakoitza: sintatikoa, semantikoa, eta hein ttipagoan enuntziatiziozkoa «Joskera edo sintaxi akusatibo» dun hizkuntza baino areago, egiazko «ardatzik» gabeko mintzaira bat dugu R.M. W. Dixonek darabilen terminoaren arabera, edo urriki markaturik ardatzarekin.

Kasuzko funtzionalen eta eginkizun semantikoen arteko korrespondentziek, hala nola aditzera emaniko aldaketek, pentsarazten digute ezen kasu-adierazleak, plano semantikoen duen izaera gutiz-gehiago motibatua ahultzerat jotzen duela.

Ene oharrak

Coyos irakurritz gük hanitxez egari dütügün gora beherak esperantxak eta etsipenak xeheki lanthü dütü. Jakin dü Coyosek bere sabant zelütik behar zenean jaisten zeren bethi gogoan izan dü zer igaraiten da? Zer gertatzen da Züberoan. Aitor dezagün ez dela aski gure mintzajearen eritarzünak ezagützea ezagütarazi behar direla erremedio zonbait ere badirela. Orhitzen zait eüskara ikasi eta hobetü nahi üken nüanean Salaberryren kantore libürüa erabili nüala, eta mintzatzen, Artxuren gramatikarekin ikasi nüala. Libürürik ezin edirenez hanitx ikasi düt osaba, izebekin, kosiekin eüskara baizik entzütän ez zen Basabürü batetan.

Orai, entzün eta mintzatü behar da bena gazte bat noiz agitüko da Züberoan lagünen artean frantzimantik gabe, bai badira eüskaraz mintzatzen diren elkarte zonbait hala nola *Sü Axia* edo *Hebentik*, edo *AEK laminak* edo ikastolakoak. Orhit niz zer bihotzeko tinkadüra eman zeitan behin düala berrogeitahamar urte Atharratzeko kolejiotik arrajiten zirelarik, kosiaren autobusean, denak frantsesez ari zirela, eta orhitzen nintzan Andozeko eskolan hogeit urte lehenago bi urteez egon nintzanean haurrak abantxü oro

eüskaraz mintzatzen zirela. Andozeko eskola hartan hogeitahamabostetarik hiru frantzimant eta horien artean ni, bai eskola hamahiru-hamalau urtekin ürrentzen zenean frantsesak ez züan eüskararen itozteko aizinarik, bena orai hamasei urteez frantses eskolan ibilten direnak nekez mintzatzen düe, nahiz entelegatzen düen.

Mintzajeak beste etsai bat badü eüskaldün direnek üsü frantzimantek beno haur gütiago düela eta hanitxek, nahiz eüskara badakien ez düe haurrer irakasten.

Lehen senaremazte gazteak zaharrekin bizi ziren eta haur hanitxek aitita eta amamarekin eüskara ikasten züen. Orai, zaharrak karriketara edo zahar-etxetara igorten dütüe eta haurrek etxen eüskararik ez entzüten.

Eüskara orai beno gaizkiago ikusirik zen lehen nahiz orai beno haboro mintzatzen zen, bena orhit nola erraiten zeitan aitak erdi etsitürik «Tu perds ton temps avec ton basque, tu ne retourneras pas au pays» eta Ligin ere erran zeitadena «zertako behar dük apez mintzaje hori ikasi?»; gorago erran dügü nola, orai, gure mintzajea ez dela baratzen diren zuberotar apezren arrenküra handiena.

Aitor dezagün harrokeriak badüala khinberra. Lehen erraiten bazen Xar-rako zübütik landa Eüskararak ez züala deuse balio, bena lehenago frantsesak ez züan deuse balio, eüskaldüentako Argentinara eta Uruguaila joaiten zirenentako. Orai, Iruneko zübiak, bentetarik kanpo, igaran ondoan zertako baliatüko zaio frantsesa? Bidasoatik haraintian anglesa ikasten omen düe bena ez dütelako egün oroz entzüten izigarri gaizki, musurkatzen, eta frantsesek beno gaizkiago emaiten. Zer ele ta ahopide txarrak. Nik uste eta hor Jüsef Egiategi gure hamazortzigerren menteko filosofoak arrazu züan ziolarik:

Aspaldian dago errana gizona dela hanbatetan gizon nola mintzo süberte beitaki: topa heüskaldün menditarrak dakian espainola delako heen aüzo, topa ere ordokitarrak dakian biarnesa edo zerbait frantsesetik, hantik; biek dütükien abantailla gatik, bena beren artean ta etsaien eretzian, heüskara xahia dezen mintza, da ene egarria.

Errelijioneak abantxü ützi dü katixima eüskaraz irakastea, apez eüskaldünak frantsesaren alte jokatü dira eta laiko zonbait dira katixima eüskaraz

irakasten bermatü; meza bi mintzajetan emaiten da, khantoreak eüskaraz edo batere ez, prediküak frantsesez beita beti norbait gure mintzajea ez dakiana. Azken indarrak eman zütian Junes Casenavek alde batetik bizpahiru libürü sabantak Züberoako eüskaran ezarriz, bai eta lüzaz eüskarazko mezak emaitetz, bena erretreta hartü düanean Betarramitek frantsesezko meza eskentü diote eta han ez da kantore bat ere eüskaraz entzün.

Orain arte eta etengabe Züberoako eüskalkia ikertü da eta güti edo hanitx erakatsi. Badakigü badela lan handiagoa dakienen mintzarazteko eta ez dakienen eüskaldüntzeko, bena üngürüan badütügü gure zokoko mintzajea deusetik abiatüz ikasi düenak eta beste zonbait hatsarretik ere badakienak. Zer agit ere, zer gerta ere ihork ez dü erranen mintzaje eder bat bazüen eta salbatzeko ez die deus ere egin.

Ezpeiniz ez azti ez profeta ez dakit zer izanen den eüskara hebentik ehün urte. Aspaldian eri eta ezin hilez dela gure mintzajea? Bai, Vinsonek uste züan Euskal Herri osoan hogeigerren mentean 200.000 gibeloï zonbait, eüskaraz mintzatüko zela, eta Onésime Réclusek ez züala hogeigerren mentea ikusiko. Mementoko ehün urte irabazi dügü.